

## BEASAINGO UDALA

*Dirulaguntza deia: XXIV. IGARTZA LITERATURA SORKUNTZAKO BEKA IDAZLE BERRIENTZAT*

Argitara ematen da deialdiaren laburpena dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoari jarraituz. Testu osoa Dirulaguntzen Datutegi Nazionalean kontsulta daiteke: (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans>).

### 1. Dirulaguntzaren xedea.

Beasaingo Udalak, Beasaingo CAF (Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles) enpresaren babesarekin eta ELKAR argitaletxearen laguntzarekin, euskal kultura zabaldu eta idazle gazteen lanari laguntza emateko asmoz, XXIV. IGARTZA LITERATURA SORKUNTZAKO BEKA emateko oinarriak arautzen dira.

### 2. Dirulaguntza eskatzeko bete behar diren baldintzak

- a) 35 urte bete gabe izatea.
- b) Aurretik lan argitaraturik izatekotan, helduentzako bi liburu baino gehiago ez izatea.
- c) Aurreko edizioetako Igartza Beka sariaren titularra ez izatea.
- d) Narratibako lanak izatea: eleberria edo ipuin-bildumak.
- e) Lanak jatorrizkoak eta euskaraz sortuak izango dira.
- f) Ez da onartuko lehiaketaren batean saritutako eta argitaratutako idazlanik ez osotasunean ez zati batean, eta ezta moldatutako idazlanik ere.

### 3. Dirulaguntzaren zenbatekoa

Ordainketa modu honetan egingo da CAF enpresak eta Elkar argitaletxeak diru ekarpena egin ondoren:

.- 3.000,00€, irabazle izendatu bezain laster.

- 3.000,00€, idazlana amaitu eta entregatutakoan eta epaimahaikoek onespena emandakoan, aldeztu aurretik zerga eta gizarte segurantzaren betebeharrak eguneratuta egotearen agiriak aurkeztuta.

### 4. Eskakerak non eta noiz aurkeztu

2021eko ekainaren 30a izango da proiektuak aurkezteko azken eguna.

Modu ofizialean entregatu beharko dira, hau da:

.- Udaletxeko sarreran erregistro ofizialean aurkeztuta, horretarako eskaria bete( l. eranskina)

.- On-line bidez, hau da, udaletxeko erregistro elektronikoa erabiliz:  
[www.beasain.eus](http://www.beasain.eus)